




Federación Española de Sociedades
de Profesores de Matemáticas

XXX. KANGURU MATEMATIKOA

MAILA 1

Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzako 1. maila

2025eko martxoaren 20a



1. Derrigorrezko Bigarren Hezkuntza

Probaren iraupena eta galdera bakoitzaren puntuazioa

Proba egiteko denbora ordubete eta 15 minutukoa da.

Galdera bakoitzeko erantzun zuzen bakarra dago. Gaizki erantzundako galdera bakoitzeko honela penalizatuko da: ondo erantzundako galderaren balioaren laurdena. Erantzun gabeko galderak ez dute punturik emango, eta ez dute penalizaziorik izango. Hasieran 30 puntu izango dituzu.

Erantzun-orria nola bete eta nola aldatu emandako erantzuna

Adibidez, 1go galderan **B** aukera markatu nahi bada, goiko lerroko koadroa bete behar da.

	A	B	C	D	E
1	<input type="checkbox"/>	<input checked="" type="checkbox"/>	<input type="checkbox"/>	<input type="checkbox"/>	<input type="checkbox"/>
	<input type="checkbox"/>	<input type="checkbox"/>	<input type="checkbox"/>	<input type="checkbox"/>	<input type="checkbox"/>

Erantzuna aldatu nahi baduzu eta **D** aukera markatu nahi baduzu, beheko lerroko **D** koadroa markatu behar duzu.

	A	B	C	D	E
1	<input type="checkbox"/>	<input checked="" type="checkbox"/>	<input type="checkbox"/>	<input type="checkbox"/>	<input type="checkbox"/>
	<input type="checkbox"/>	<input type="checkbox"/>	<input type="checkbox"/>	<input checked="" type="checkbox"/>	<input type="checkbox"/>

Galdera bati ez erantzuteko koadro guztiak hutsik utzi behar dira.

	A	B	C	D	E
1	<input type="checkbox"/>	<input type="checkbox"/>	<input type="checkbox"/>	<input type="checkbox"/>	<input type="checkbox"/>
	<input type="checkbox"/>	<input type="checkbox"/>	<input type="checkbox"/>	<input type="checkbox"/>	<input type="checkbox"/>

GARRANTZITSUA

Galdera batean koadro bat baino gehiago markatuz gero, erantzun hori baliogabetuko da eta ez-erantzundako gisa hartuko da.

	A	B	C	D	E
1	<input type="checkbox"/>	<input checked="" type="checkbox"/>	<input type="checkbox"/>	<input type="checkbox"/>	<input type="checkbox"/>
	<input type="checkbox"/>	<input type="checkbox"/>	<input checked="" type="checkbox"/>	<input checked="" type="checkbox"/>	<input type="checkbox"/>


XXX. KANGURU MATEMATIKOA

Maila 1

Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzako 1. maila

3 puntuko galderak

1 Zein piezak osatuko luke irudia?



- A) B) C) D) E)

2 Anak 2025 dioen murala osatu du. Berta muralaren atzeko Bertak ikusten duen irudia? aldean dago. Zein da Bertak ikusten duen irudia?

- A) B) C) D) E)

3 Franciscok paper-hegaletan zenbakiak eta zuloak dituen liburuxka du, irudiak adierazten duen bezala.


Eskuineko paper-hegala tolestean du lerro gorritik eta 2, 3, 5 eta 6 zenbakiak ikusten ditu. Orain, ezkerreko paper-hegala ere tolestean du marra gorritik. Zein da orain ikusten dituen zenbakien batura?

			4	9	2		
			3	5	7		
			8	1	6		

- A) 10 B) 12 C) 14 D) 9 E) 8

1. Derrigorrezko Bigarren Hezkuntza


4 Kubo bat dekoratu da berdinak diren karratu grisak itsatsiz. Kuboaren alde guztiek itxura bera dute.








Zenbat karratu gris daude orain?


- A) 30 B) 18 C) 16 D) 15 E) 14

5 Emiliok tomate-xerrak, oliba beltzak, piper minak, txanpiñoiak eta kipula jarri ditu pizza baten gainean, banan-banan, eta ez zehazki ordena horretan. Irudian duzu Emiliok egin duena. Zein da pizzan jarri duen hirugarren osagaia?




- A) Tomate-xerrak 
- B) Oliba beltzak  C) Piper minak 
- D) Txanpiñoiak  E) Kipula 

6 A edukiontzia 10 litro ur ditu. Aldi berean A edukiontzia 3 tapoiak kentzen dira. Zenbat ur sartzen da B edukiontzian?



- A) 3 Litro B) 4 Litro C) 5 Litro D) 6 Litro E) 8 Litro

7 Teresak irudiko hexagonoona biratzen du, hasierako posiziotik eta irudiak erlojuaren orratzen noranzko berean. Irudian egindako lehen biraketa erakusten da.



Zein itxura izango du erlojuaren orratzen noranzko berean 8 aldiz biratu den

- A)  B)  C)  D)  E) 

8 Nire hanburgesa-denda gogokoeneko menua klarionez idatzia dago arbela batean. Euriak zifra batzuk ezabatu ditu. Badakit hanburgesak prezioaren arabera ordenatuta daudela. Ondokoen artean, zein da horietako hanburgesa baten prezioa?

Bejetarianoa	3,70
Klasikoa	,30
Hirugarren berra	,60
Gazta-hanburgesa	,50
Bikoitza	,10
Luxuzkoa	6,10

- A) 4,10 € B) 5,50 € C) 5,60 €
D) 6,30 € E) 6,60 €

9 Sei umek lasterketa batean parte hartu zuten. Dakiguna zera da:

- Ariadnak hirugarren posizioan bukatu zuen.
- Biel seigarren geratu zen, hain justu Fernandoren atzetik.
- Fatimak Ariadna eta Ernestoren artean bukatu zuen.
- Dianak Karlos aurreratu zuen helmuga baino lehenxeago.

Nork irabazi zuen lasterketa?

- A) Ariadnak B) Karlosek C) Dianak D) Ernestok E) Fatimak

10 Hiru apal dituen apalategi batek 17 liburu ditu goiko apalean, 15 erdikoan, eta 7 behekoan. Apal guztietan liburu-kopuru bera egotea nahi baduzu, ahal denik eta liburu gutxien mugituz, zenbat liburu aldatu behar dituzu erdiko apaletik behekorara?

- A) 1 B) 2 C) 3 D) 4 E) 5


4 puntuko galderak

11 Hiru dortokek 10 kilometroko lasterketan parte hartu dute. Haietako bakoitza abiadura konstantean mugitzen da, bakoitza abiadura jakin batean. Lehen dortokak amaitzean, bigarrenak distantziaren $\frac{1}{4}$ egin du eta hirugarrenak $\frac{1}{5}$. Bigarrenak amaitzen duenean, helmugatik zein distantziatara egongo da hirugarrena?

- A) 1 Km. B) 2 Km. C) 3 Km. D) 4 Km. E) 5 Km.

12 Veronicak dorre bat eraiki du zenbakitutako blokeekin. Zenbat modutan berrantola dezake dorrea galdera-ikurraren bidez agertzen diren blokeen ordez beste zenbaki batzuk jarritz, bloke bakoitzaren zenbakia gutxienez azpian dagoen blokearen zenbakia baino bi unitate handiagoa izan dadin?


- A) 3 B) 4 C) 5 D) 6 E) 7



1. Derrigorrezko Bigarren Hezkuntza



13 Irudian bost zoriaren erruleta daude. Erruleta bakoitza tamaina bereko pieza berdinetan banaturik dago. Erruleta geratzen denean goiko gezia belztutako eremu baten gainean geratzen bada, irabaziko duzu.

Zein erruletarekin duzu irabazteko aukera handiagoa?



- A) 1 B) 2 C) 3 D) 4 E) 5

14 Zein pieza ezin daiteke jarri koadro handiko gelaxka zurietan bakarrik? Piezak biratu daitezke.




15 Gure eskolako igeriketa-taldea errelebo-lasterketa baterako ari da entrenatzen. Igerilariek distantzia bera egin behar dute igerian, bata bestearen atzetik. Ondoko irudietan entrenatzailearen kronometroak erregistratutako denborak jasotzen dira. Kronometroa ez da inoiz geratzen, baina igerilari bakoitzak egin beharreko distantzia egitean markatutako denbora erakusten da. Lehen igerilariak 2 minutu eta 8 segundo behar izan zituen. Zein igerilarik behar izan zuen denbora gutxiago?








- A) Lehenak B) Bigarrenak C) Hirugarrenak D) Laugarrenak E) Bosgarrenak

16 Juanak lau karratu berdin moztu ditu orri karratu batetik, irudiak erakusten duen moduan. Moztu dituen karratuen azalera 16cm^2 -koa da guztira, eta geratu den gurutzearena 9cm^2 . Zein da gurutzearen perimetroa zentimetrotan?



- A) 9 B) 16 C) 20
D) 25 E) 32


17 Ondoren erakusten diren txarteletako bakoitzak hiru zifrako bi zenbaki ditu, baina zifra batzuk ezin dira ikusi tinta erori delako gainean. Txarteletako batean bi zenbakien zifren batura berdina da. Zein da txartel hori?

- A) **543** eta **11**  B) **58** eta **11**  C) **982** eta **1** 
- D) **211** eta **6**  E) **777** eta **2** 

18 Irudia karratu berdinez osatua dago. B puntua A eta C puntuen erdi-erdian dago, bietatik distantzia berera. D puntua ere E eta C puntuen erdian dago.


Mariak irudia azalera bereko bi zatitan banatu nahi du, segmentu batekin aurreko puntuetako bat (A, B, C, D edo E) S puntuarekin lotuz. A, B, C, D edo E puntuetako zein aukeratu behar du?

- A) A B) B C) C D) D E) E



19 Irudiko gelaxketako bakoitzean 0 edo 1 jarri nahi da, zutabe, lerro eta diagonal bakoitzeko zenbakien batura 3 izan dadin. Dagoeneko 0 bat jarri da. Zein izango da galdera-marka duten gelaxketan egon behar duten zenbakien batura?

- A) 1 B) 2 C) 3
D) 4 E) Ezin da kalkulatu



20 1etik 9rako zenbaki guztiak behin bakarrik erabilia, hiru zifrako hiru zenbaki idatzi ditugu. Euren balioaren arabera, "txikia", "tartekoa" eta "handia" deitu diegu. Irudiak aukeretako bat erakusten du.



Mariak tarteko zenbakiak izan dezakeen baliorik handiena idatzi du. Pablok, berriz, zenbaki horrek hartu dezakeen baliorik txikiena. Zein da zenbaki horien arteko aldea?


- A) 642 B) 684 C) 864 D) 888 E) Aurreko bat ere ez

1. Derrigorrezko Bigarren Hezkuntza


5 puntuko galderak

21 Sorgin batek 10 sagar, 9 gerezi eta 6 marrubi zituen. Egun batean magia egin zuen eta bere fruta bakoitza beste bi frutetako bat bihurtu zuen. Adibidez, sagarretako bakoitza marrubi edo gerezi bihurtu zuen. Orain 15 sagar, 7 gerezi eta 3 marrubi ditu. Zenbat sagar bihurtu ditu marrubi?

Lehen




Orain



- A) 3 B) 4 C) 5 D) 6 E) 7

22 Irudiko karratuaren aldeetako bakoitzak 10 cm ditu. Erdiko lerroak karratua bi laukizuzen berdinetan banatzen ditu. Zein da belzututako zatiaren azalera?



- A) 12,5 cm² B) 25 cm² C) 30 cm² D) 40 cm² E) 50 cm²

23 Irudi hau bost zatitan banatu nahi da, zati bakoitzak forma bera izanik eta zati bakoitzean hiru karratu utziz. Zein letra egongo da izarrarekin markatutako karratua duen pieza berean?

- A) A B) B C) C D) D E) E

	A		
B	☆	C	
D		E	

24 Facundok inoiz ez du egia esaten astearte, ostegun eta larunbatetan. Gainontzeko egunetan beti esaten du egia. Halako egun batean Mateok ondoko elkarrizketa izan zuen Facundorekin:

Mateo: «Zer egun da gaur?»

Facundo: «Larunbata»


Mateo: «Zein egun izango da bihar?»

Facundo: «Asteazkena?»

Zein egunetan izan zuten elkarrizketa hau?

- A) Astelehen B) Astearte C) Asteazken D) Ostegun E) Ostiral

25 Gurutze-itxura duen ondoko irudia egin nahi dugu, erakusten diren piezak erabilia. Pieza bakoitza hainbatetan erabili daiteke, eta, beharrezkoa bada, biratu. Piezak ezin daitezke gainjarri. Zein da irudia osatzeko pieza-kopuru minimoa?




- A) 11 B) 12 C) 13 D) 15 E) 17

26 Paret bat eraiki nahi dugu zeinaren altuera bi unitatekoa den, 1x2 unitateko neurria duten adreiluak erabiliz. Unitate bateko luzera duen paret egiteko aukera bakarra dago adreilua jartzeko, baina bi unitateko luzera duen paret egiteko bi aukera daude:



3 unitateko luzera duen paret egiteko aukerak ondokoak dira:




Zenbat modutara jar daitezke adreiluak 4 unitateko luzera duen paret egiteko?

- A) 4 B) 5 C) 6 D) 7 E) 8

1. Derrigorrezko Bigarren Hezkuntza


27 Irudiko karratuetan 1etik 9ra bitarteko zenbaki naturalak idatzi nahi ditugu, elkarren ondoan dauden bi karratuko zenbaki batura karratu horiek lotzen dituen segmentuan agertzen denaren berdina izan dadin.



Zein da belztutako karratuetako zenbaki batura?

- A) 16 B) 17 C) 18 D) 20 E) 21

28 Cristinak irudiko hiru eraikuntza-blokeak konbinatu ditu. Zein irudik erakusten du bere eraikuntzak izan lezakeen itxura?



- A) B) C) D) E)

29 Sarak Juanek baino hiru aldiz bonboi gehiago ditu. Sarak bere bonboien laurdena Juani emanaz gero, Juanek baino 6 bonboi gehiago izango ditu. Juanek baino zenbat bonboi gehiago ditu Sarak hasieran?

- A) 36 B) 30 C) 27 D) 24 E) 20

30 Inmaculadak loreak erosi nahi ditu. Irudian lore bakoitzaren prezioak agertzen dira. Zenbat lore-sortaren kostua izan daiteke 23€koa?



- A) 4 B) 5 C) 6 D) 7 E) 8